

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure ekimenaren helburu nagusia birziklatzearen mugimendua bultzatzea eta mugimendu honetara jende berria gehitzea da. Gure ideiarekin uste dugu modu erraz eta dibertigarri batean, gizarteak ikasi eta baloratu ahal duela birziklapena. Horren ondorioz, gizartearen bizi-kalitatea hobetzea eta ingurugiroaren egoera hobetzea lortuko dugula espero dugu.

Beraz, birziklapenari bultzadatxo bat emateko asmoz, NATUREBIN asmatu dugu, birziklapena bultzatzen duen zakarrontzia. Tamaina handiko zakarrontzi edo kontenedoreak dira eta leku publikoetan kokatuta egongo dira, edonork erabil ditzan. Gure proiektuan parte hartu nahi duen edonork erabiltzaile txartel bat izango du eta helburua ahalik eta birziklatutako kg gehien lortzea da. Bezero bakoitzak zakarrontzian sartzen dituen hondakinen pisua bere erabiltzaile-txartelean jasoz joango da.

Zakarrontzi honek 4 atal ditu (kartoia, plastikoa, organikoa eta beira) eta bertan dagokion zaborra birziklatzen da. Zati bakoitzean baskula bat dago, edozein pertsonak birziklatutako kopurua pisatuko duena, erabiltzaile bakoitzak izango duen txartel pertsonalean kg-ak metatuz. Atal bakoitzean 5 kg-etara iristean, erabiltzaileak sari bat jasoko du pizgarri moduan. Sariak deskontuak izango dira. Hauek udalarekin (garraio publikoan), Elkar dendarekin(eskola materiala) eta Gasteizko alde zaharreko bi dendekin, Fundicion (arropa denda) eta Etorkizun supermerkatua.

Birziklatutako zaborra, lurpeko tutu batzuen bitartez, zuzenean gardelegi batera garraiatuko da.

Materiala behar bezala birziklatzen dela eta dena modu egokian funtzionatzen duela egiaztatzeko, zakarrontzi guztiak langile batez zainduta egongo dira. Gasteizen, zakarrontzi bat ipiniko dugu gizarte-etxe bakoitzaren sarreran. Gizarte-etxeak, auzo guztietan daude, horrela, jendeak zakarrontzi bat edukiko du haien etxeetatik hurbil.

Aldaketa klimatikoa gaur egungo arazo larrienetariko bat da. 2014-2019 bitartean erregistratu da historiako garairik beroena. Gainera, itsasoaren-maila igo da eta honekin batera CO2aren ehunekoak. Are gehiago, adituek diotenez 2030ean aldaketa klimatikoak 100 milioi pertsona pobreziara bultzatuko ditu. Ez gaude prest egoera larri hau

onartzen jarraitzeko eta gure enpresak hau ekiditeko konpromesua hartu nahi du. Gure planeta babesteko gure esku dagoen guztia egiteko ahalegina egin nahi dugu. Birziklapenaren aldeko apostua egingo dugu!!! Benetan pentsatzen dugu gure egitasmoak hainbat onura ekarriko dituela gure mundura eta gure gizartera.

Gure proiektuari eta NATUREBIN zakarrontziei esker, ondorengoak dira lortuko ditugun onurak:

- Birziklapena modu egokian nola egin ikasiko dute erabiltzaileek.
- Bezeroek pizgarriak lortuko dituzte eta horrek geroz eta gehiago birziklatzea animatuko ditu.
- Jasotako sarietaz gain, birziklatzearen onuretzat ohartuko dira erabiltzaileak. Hala nola, gure lurra zaintzea eta gure bizi-kalitatea hobetzea ezinbesteko faktoreak direla konturatu dira.
- Gasteiztarren enplegu tasa handitzea lortuko dugu. Izan ere, langabeziaren aurka borrokatu nahi dugunez, gure zakarrontziak zaintzeko eta kontrolatzeko, langileak kontratatuko ditugu.
- Gainera, gure lurpeko tutuak saihesten dute zaborra kamioetan garraiatuta izatea, ez gara konturatzen baina bide horretan kutsatzen jarraitzen dugu.

Gure ekimena beste proiektuengandik desberdintzen da, bi arrazoi nagusiengatik: batetik, aldaketa klimatikoaren kontra eta ingurumenaren babesaren alde egiten dugulako eta bestetik langabeziaren datuak hobetzeko apustua egiten dugulako. Bestetik, gizarteari hainbeste arduratzen dion langabezi-tasa txikitzea helburu dugulako, lanpostu berriak sortuz. Lanbideko datuen arabera, langabeziak 14.775 gasteizterrei eragiten die. Honek familien diru sarrerak gutxitzea dakar eta aldi berean, kalitate txarreko produktuak (merkeagoak direnak) kontsumitzea. Horregatik, gure proiektuan parte hartzeagatik, hau da, birziklatzeagatik, hainbat sari jasoko ditu bezeroak, arropan, janarian, ikastolarako produktuak eta garraio publikoan deskontuak. Esan dugun moduan, guretzat oso garrantzitsua da pertsonen bizi-kalitatea hobetzea eta sustatzea.

Gustatuko litzaiguke gure produktua Europa mailara zabaltzea, gure enpresaren onurak ahalik eta pertsona gehienekin partekatzeko; baina lehendabizi, Gasteizen suspertzen hasiko ginateke gasteiztarrek gure proiektua nola jasotzen duten ikusteko. Erantzuna ona bada, gure egitasmoa zabaltzeko apustua egingo dugu. Erronka potoloa den arren, itxaropen altuak espero ditugu, izan ere, Gasteiz 2012an "Green

Capital” saria jaso zuen eta 2019an “Global Green City Award” jaso  
duelako.